ASMOZ TA JAKITEZ

227

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE 2011

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

## www.uztartuz.org: 225.219 referencias sobre cultura y ciencia vascas

La Fundación Euskomedia ha habilitado en internet un gran buscador de contenidos digitales sobre cultura y ciencia vascas. Bajo la denominación de Uztartuz, esta herramienta facilita el acceso a aquellos repositorios que, independientemente de su ubicación territorial, se ajustan a los estándares exigidos para enlazar con las principales iniciativas internacionales como Europeana.

El servicio selecciona los repositorios, los indexa y los pone a disposición mediante un sencillo sistema de búsqueda que remite al usuario directamente a la base de datos o al repositorio donde los contenidos de su interés están alojados. Quiere esto decir que Uztartuz no almacena los contenidos sino que registra los metadatos que identifican y describen los documentos. De esta forma, cada biblioteca digital es responsable del mantenimiento de los documentos y de sus metadatos.

En la actualidad Uztartuz tiene indexados 225.219 documentos correspondientes a nueve proyectos de seis instituciones. De estos nueve proyectos actualmente dos están en Europeana: Memoria Digital Vasca de Fundación Sancho el Sabio y Hedatuz de Eusko Ikaskuntza–Euskomedia Fundazioa.

- EMD: Fundación Sancho el Sabio (2.230 documentos)
- DADUM: Universidad de Navarra (15.021 documentos)
- ARTXIKER: Centro Iker y CNRS (Centre National de la Recherche Scientifique, Paris) (346 documentos)
- META: Diputación Foral de Gipuzkoa (34.440 registros)
- LIBURUKLIK: Biblioteca Digital del Gobierno Vasco (4.331 documentos)
- HEDATUZ: Eusko Ikaskuntza - Euskomedia Fundazioa (7.627 documentos)
- EDTB: Tesis doctorales. Eusko Ikaskuntza - Euskomedia Fundazioa (5.875 documentos)
- AUÑAMENDI: Eusko Ikaskuntza - Euskomedia Fundazioa (141.854 documentos)
- EUSKONEWS: Eusko Ikaskuntza - Euskomedia Fundazioa (13.485 documentos)

Hedatuz ha sido realizado por la Fundación Euskomedia de Eusko Ikaskuntza en el marco del programa “Gipuzkoa 2.0” de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

## Omenaldi hunkigarria Jose Antonio Arana Martixari

### La entrega del Premio Manuel de Lekuona 2010 a título póstumo, reunió en Bilbao a familiares, amigos y discípulos del gran musicólogo y euskaltzale




Fot. Eva Zubero

Urriaren 14an, Jose Antonio Arana Martixari Manuel Lekuona Saria emateko ekitaldia egin zen Bizkaiko Foru Aldundian. Hil ondoko ospakizuna izan zen, zeren eta, Saria 2010eko amaieran eman bazen ere, joan den apirilaren 26an zendua izanik, ezin baitzitzaion saria lehenago eman.

Musikologoa, kultura eragilea, euskaltzalea, Euskaltzaindiko liburuzaina, bere denborarekin konprometituriko gizona, Jose Antonio Arana Martixa XX. mendeko urterik zailenetan ereduzko pertsona izan zen euskal kulturaren barnean, eta jarraibide bat belaunaldi gazteentzat. Hori dela eta, Juan Maria Aburto, Lehendakaritza Saileko Foru Diputatuak ondokoa adierazi zuen: “Bizkaitar guzti-guztiak zorretan gaude Jose Antonio Arana Martixarekin, hark egindako lan eta ekarpenagatik”. Ildo horretatik, azpimarratu zuen ezen gernikarra ez zela soilik “euskal kulturaren baitako jakintsua, baizik eta, oro har, munduko kulturetakoa”.

Pruden Gartzia, Eusko Ikaskuntzak okasiorako argitaraturiko bio-bibliograiaren egilekideak “laudatio”-a egin zuen. Bereziki hunkigarria izan zen Maiteder Arana familiaren ordezkariaren mintzaldia, sarituaren barne-barneko nortasunaz hitz egin zuelarik. Alderdi horri dagokionez, Jose Maria Muñoa, Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak ondokoa adierazi zuen: “Jose Antoniorentzat familia bizitzaren gauzarik garrantzitsuena zen; hala, horiek gure artean egonda, esan dezakegu Jose Antonio hemen dagoela, gurekin dagoela”.

Printzipio sendoak zituen pertsona gisa definitu zuen Arana Martixa, baina beti jarrera eraikitzailea zuena. Eta gaineratu zuen: “Gure herrian inoiz ez ditugu halako pertsonetatik gehiegi izan. Eta gaur, etorkizunari begira gure bizikidetza kolektiboko aukera berriak zabaltzen ari direlarik, ahaleginak egin behar ditugu gure balioetan eta sinisteetan sendo agertzeko, jakina, baina baita eraikitzaile ere. Ahalegin gaitezen eraikitzaile izaten, Jose Antonio beti izan den bezalaxe”.

Mintzaldien ondoren, Bilboko Koral Elkarteak euskal kantutegi tradizionaleko pieza batzuk interpretatu zituen, era horretara ekitaldiari amaiera bikaina ematen ziola.

## Erakunde Bizitza




(1)

### ENE 2011: euskal emakumeak

Urriaren 27an, Donostiako egoitzan, Euskararen Nazioarteko Egunaren (ENE) beste gertaldi bat aurkeztu zen, Eusko Ikaskuntzak 1949an eraturiko ospakizun honen helburua abenduraren 3an euskararen unibertsaltasuna aldarrikatzea delarik. Aurten, ospakizun honen bidez euskal historia markatu duten emakumeak omenduko dira. Xede horretan, 44 emakume aukeratu dira, aldi, jakintza adar eta jarduera eremu desberdinetakoak eta Kukuxumusuk diseinaturiko elastikoaren protagonista direnak (1). Parte hartzea bultzatzearren, lehiaketa erraz bat jarri da martxan Eusko Ikaskuntzaren web gunean. Abenduaren 2a baino lehen zuzen erantzungo dutenen artean oparituko dira elastiko horiek.

### Alava: Consejo Asesor

El 13 de octubre en la sede de Vitoria se reunió el Consejo Asesor Territorial de Alava. En el encuentro se analizaron tanto la situación de Eusko Ikaskuntza como la coyuntura del momento actual en sus vertientes social, económica y cultural. Respecto a lo primero, el Consejo reafirmó el valor sustantivo de Eusko Ikaskuntza e hizo un llamamiento para que, en plena crisis, la Sociedad mantenga en la medida de lo posible sus proyectos y actividades. Entre otras ideas, el Consejo Asesor Territorial de Alava propuso organizar foros abiertos sobre el fenómeno de "los indignados", analizando las causas de este movimiento "desde un punto de vista sociológico, económico y psicológico".

## Jakiunde

### Jakin-mina



Jakiunde, Academia de las Ciencias, de las Artes y de las Letras en colaboración con la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU llevan a cabo la iniciativa Jakin-mina dirigida a estimular el desarrollo intelectual y personal de jóvenes motivados académicamente mediante un programa multidisciplinar de conferencias y demostraciones impartidas por expertos de primer nivel. De noviembre a marzo hay previstas 28 charlas en los Campus de la UPV/EHU de las tres capitales y en la UPNA en Iruña.

Jakin-mina comienza el 11 de noviembre con una charla en Donostia del neurólogo José F. Martí Masso, otra en Bilbao de la lingüista Itziar Laka y una tercera en Iruña del filósofo Daniel Innerarity. El 25 de este mismo mes, Pedro Miguel Etxenike disertará sobre nanotecnología en el Centro Joxe Mari Korta de la UPV/EHU de Donostia.

## Auñamendi Eusko Entziklopedia

### Historia eta Literatura

Historiaurretik XXI. mendera. Idazlumatik teklatura. Gure historia eta literatura, egungo Euskal Herriaren eta entziklopediako oinarrizko bi ardatz. J. Chueca eta I. Aldekoa dira sail hauetako arduradunak, edukiak kudeatzen laguntzen digutenak.

Asko dira parte hartu duten kolaboratzaileak, guztiak ospetsuak eta landu duten arloan adituak: H. Abrisketa, J. A. Achón, A. Adot, X. Aierdi, M. X. Aizpuru, A. Aragón, J. Arce, A. Arrizabalaga, F. J. Caspistegui, J. Chueca, P. Echeverry, M. X. Etxegarai, Gerediaga Elkartea, R. Kerexeta, J. J. Larrea, E. Majuelo, F. Martínez, F. Mendiola, C. Rilova, M. Urteaga, F. M. Vargas, X. Altzibar, A. Arcocha, L. Azaola, J. M. Díaz de Gereñu, P. Esnal, X. Etxaniz, I. Etxeberria, M. Ibarluzea, J. Kortazar, P. Kortazar, L. Mitxelena, M. J. Olaziregi, L. Otaegi, J. Rojo, P. Urkizu eta E. Zuloaga.

## Sariak

### 2011ko Lekuona Saria



Hilabete honetan bukatzen da 2011ko Manuel Lekuona Sarirako hautagaiak onartzeko epea. Eusko Ikaskuntzak 1983an eratu zuen sari hau euskal kulturaren alorrean interes bereziko obra osoa (*opera omnia*) onduriko pertsona ezagunen aitormenez. Euskal Herriko lurraldeen artean txandaka eman ohi da eta, hortaz, 2011koa Gipuzkoako pertsona ospetsu bati egokituko zaio. Saria ematerakoan balio unibertsala, bizi jardunbidea, euskal kulturari egindako ekarpena eta obraren zabalkundea hartzen dira kontuan, genero orekarekin batera. Gutxienez hamar bazkidek aurkezturiko hautagaitzak onartzen dira.

### Prix El-Ville de Baiona

Les danseurs Philippe Oyhamburu, Koldo Zabala et Jean Nesprias ont reçu le Prix d'Honneur Culture Basque décerné chaque année par Eusko Ikaskuntza et la Ville de Bayonne. A 90, 75 et 84 ans respectivement, ils viennent d'étrenner *Oroitzen naiz… Je me souviens…* pièce chorégraphique créée par Mizel Théret pour ces trois immenses personnalités qui ont en commun le fait d'avoir consacré leur vie à la danse, et par-delà à la culture basque.

D'un autre côté, le Prix de la meilleure thèse a été décerné à la chercheur et membre d'Eusko Ikaskuntza Marie Pourquié pour sa recherche doctorale : *Approche neuropsycholinguistique du traitement des verbes dans l'aphasie agrammatique. Etude translinguistique de cas: basque et français.*

La remise des prix aura lieu le vendredi 9 décembre à la Mairie de Bayonne.

### Ángel Gabilondo, en el Premio EI-CL



Fot. Antoni Bofill

El viernes 25 de noviembre, en el Palacio Miramar de Donostia-San Sebastián, tendrá lugar la ceremonia de entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2011 a la soprano navarra María Bayo Jiménez. El acto estará presidido por el Ministro de Educación Ángel Gabilondo y contará con las intervenciones de representantes de las siete universidades que participan en el Jurado, el Presidente de Eusko Ikaskuntza y el Director de Caja Laboral.

## Barandiaran Fundazioa

### Busturialdeko Etnologia



Jose Migel Barandiaran Ikerketa Beka, urtero izen horretako Fundazioak ematen duena eta 2011koan etnologia ikerketari dagokiona, Daniel Rementeria Arruza antropologoari eman zaio, "Análisis etnológico de los paisajes culturales de Busturialdea: Antropología, cultura y paisaje" proiektuagatik. Bekak bi urteko iraupena du eta 16.500 euroko diru kopuruaz horniturik dago.

### Ciclo 20 aniversario

Con motivo del vigésimo aniversario del fallecimiento de José Miguel de Barandiaran, la Fundación que lleva su nombre ha organizado un ciclo de conferencias. En cada una de ellas se proyectará un vídeo sobre el "sabio de Ataun" que introducirá las intervenciones de los tres ponentes: Jesús Altuna hará la semblanza humana, Concepción de la Rúa abordará el camino seguido por la Antropología en estos veinte años, y Joxe Arregi desarrollará el tema *Ciencia y religión en el siglo XX*. Las cinco sesiones se cerrarán con un coloquio:

- Ataun (Herri Antzokia): 22-XI
- Pamplona (Palacio del Condestable): 24-XI
- Vitoria (Museo Bibat): 28-XI
- Bilbao (Foru Liburutegia): 30-XI
- Donostia (KM Kulturunea): 1-XII

## Bekak

### Apraiz-Zumalabe: erabakia

B

AGUSTIN ZUMALABE
ÁNGEL DE APRAIZ

Bi urtean behin, 36 urtetik beherako ikertzaile unibertsitarioek osaturiko taldeei eman ohi zaien Apraiz-Zumalabe beka nork bereganatu duen ezagutzera eman dute. *Ezagueraren transmisioa eskolan: erronka didaktikoak ele aniztasunaren aurrean* zen 2011ko deialdiaren gaia.

Garazi Rota, Ane Badiola Ostolaiz, Lierni Etxeberria Zubelzu eta Aroa Murciano Eizagirrek (Euskal Filologian lizentziadunak aurreneko hirurak, eta Psikopedagogian azkena) osaturiko taldeak jaso du beka, "Biografia laburra testu-generoaren didaktika eleanitza D.B. H. 4. mailan" izenburuko proiektuagatik. Urtean 16.000 euroko diru kopuruaz horniturik, taldeak bekari dagokion lanaren sei hileko eta urteko jarraipen txostenak entregatu beharko ditu, eta ikerlana bi urteko epean amaitu beharko du.

### Université de Genève

Eusko Ikaskuntza et l'Université de Genève, dans le cadre de leur accord de collaboration, offrent une bourse pour un cours académique complet ou la moitié d'un cours dans cette institution en qualité d'Hôte de relations internationales.

La bourse est adressée aux docteurs ou aux candidats au doctorat dont les thèses se trouvent dans une phase très avancée, pour leur permettre de développer une recherche liée aux sciences de l'éducation, avec une attention particulière pour les processus d'acquisition et d'apprentissage des langues. La dotation économique de la bourse sera de 2.430 euros par mois. Le délai d'admission des sollicitudes se termine le 15 décembre.

## Jardunaldiak

### Xaho, berrehungarren urteurrena

Urriaren 8an, Agusti Xahoren (1) jaiotzaren berrehungarren urteurrenean, Historia Sailak Omenaldi-Jardunaldi bat antolatu zuen jenio erromantiko horri buruz Baionako Euskal Museoan. Hamar komunikazio aurkeztu ziren Xahoren bizitza eta obraren hainbat alderdiz: politikan izan zuen parte hartzea, ekarpen filologikoa, kazetaritza lana, haren ideologia politikoa, euskal historiaz zuen ikusmolde mitikoa edo haren liburu garrantzitsuenaren analisia, Le voyage en Navarre durant l'insurrection des Basques. Entzule interesatuek euskaraz eta frantsesez azalduriko komunikazioak jarraitu zituzten.

### Intervenir dans les organisations

Le 20 de octobre à Bidart et le lendemain à Donostia ont eu lieu les XVII[èmes] Journées de Projectique concernant le thème "Intervenir dans les organisations: vers des approches transdisciplinaires et systémiques". Lors de la première session, Armand Hatchuel, professeur de l'Ecole des Mines de Paris et expert dans la production des connaissances dans l'organisation, a donné une conférence intitulée "L'Ingénierie de conception et innovation". L'invité du lendemain était Daniel Gerbinet, Master en politiques et pratiques de formation, psychothérapeute et superviseur, qui partagea ses réflexions sur divers apports transdisciplinaires dans le domaine des organisations.

### Gernika dans la mémoire

Eusko Ikaskuntza et Angeluko Ikasleak organisent à l'occasion du 75[ème] anniversaire du bombardement de Gernika(2) le vendredi 9 décembre à la Salle des fêtes de la mairie d'Anglet une conférence animée par Jean Claude Larronde, historien, membre du Bureau d'Eusko Ikaskuntza, sur le thème "Gernika dans la mémoire".

## Cursos on line

### Arqueología de la Arquitectura

*Destinatarios:* Profesionales y técnicos vinculados a la Historia, el Arte, la Gestión y Planificación del Territorio, la Arqueología, la Restauración, la Arquitectura y, más concretamente, a la investigación, gestión y difusión del Patrimonio

*Objetivos*: Adquisición de las bases teórico-metodológicas de la disciplina y sus aplicaciones. Valorarla como una eficaz herramienta en la gestión y conservación del patrimonio

*Inicio*: Diciembre

*Horas lectivas:* 52

*Idioma*: Castellano

http://arqueologia.asmoz.org

### Monitorado de Deporte Escolar

*Destinatarios:* Personas que trabajen o quieran trabajar como técnicos de deporte escolar (mayores de 16 años con ESO)

*Objetivos*: Capacitar a jóvenes para que actúen como responsables técnicos de equipos que intervienen en competiciones de participación o de grupos de enseñanza de actividades de iniciación de deporte escolar

*Organizan*: Diputaciónes Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Asmoz Fundazioa

*Inscripción*: Noviembre

*Inicio*: 1er turno en diciembre y 2º turno en febrero

*Horas lectivas:* 90

*Idioma*: Euskera o castellano (a elegir)

http://eskolakirola.asmoz.org/

### Comunicación y Oratoria

*Destinatarios:* Cualquiera que quiera desarrollar y mejorar las habilidades de comunicación oral

*Objetivos*: Mejorar la comunicación, personal y profesionalmente, mediante el uso de las técnicas procedentes de la Programación Neurolingüística (PNL). Conocer en profundidad las nuevas técnicas y las claves de la comunicación en grupo. Adquirir habilidades básicas de Lenguaje Verbal, No Verbal y Paraverbal

*Inicio*: Diciembre

*Horas lectivas:* 30

*Idioma*: Castellano

http://oratoria.asmoz.org


(1)


(2)


(3)



(4)


(5)

## Udalak

### Nafarroa: Ezagutza gerturatzen

Bazkideen parte hartzea sustatu eta itunduriko Udalekiko harremana sendotzeko asmoz, Nafarroako Lehendakariordetzak "Ezagutza gerturatzen" programa abiarazi du (3), hainbat herritara kultura, historia eta ondare gaiak eramatearren. Hona hurrengo hitzaldiak:

- Puiu, XI-17: *Malditas descarriadas: mujer y marginación en la Navarra de los siglos XVI y XVII*. Amaia Nausia
- Iratxeta, XI-19: *Danzas y bailes de Navarra*. Mikel Aranburu Urtasun
- Oloriz, XI-26: *El mundo del carnaval: fiesta y desorden en Navarra durante la Edad Moderna*. Javier Ruiz Astiz
- Lizarra, XII-1: *Nafarroako Konkistaren 5. mendeurrenerantz (1512-1522)*. Joseba Asiron Saez.

### Donostia: Euskal Pizkundea

Joseba Ariztimuño "Aitzol" hil zela betetzen den 75. urtemuga honetan, "Euskal Pizkundea Belaunaldia" omentzearren Eusko Ikaskuntzak hainbat ekitaldi sustatzen ditu (4), beste hainbat erakunde publiko eta gizarte erakunderekin batera. Testuinguru honetan, urriaren 19tik 21era, hitzaldi eta mahai inguru ziklo bat egin zen Donostian, bertako Udalarekin lankidetzan. Aukera horretaz baliaturik, Euskaltzaleak, alderdiz gaindiko elkartearen lana oroitarazi zen; elkarte hori 1930ean sortu zen Eusko Ikaskuntzaren babespean eta "Aitzol" zuen sustatzailea. Euskal Pizkundeko emakumeak ere mintzagai izan ziren jardunaldi horietan, aitzindari izan baitziren kultura, akademia eta sormen jardueran.

### Irun: dos aniversarios

En convenio con el Ayuntamiento de Irun, Eusko Ikaskuntza participa en el ciclo dedicado a los 75 años de la quema de Irun y del fallecimiento de Miguel de Unamuno. Sobre los años de residencia del gran escritor bilbaino en Hendaya habló en octubre el escritor Félix Maraña, y hubo también una velada poética sobre "Unamuno entre la sátira poética y la nostalgia" a cargo de Jesús Rodríguez y Luis Bermejo. En noviembre el teólogo Alfredo Tamayo habla sobre "La envidia hispánica en Miguel de Unamuno".

A lo largo del mes de noviembre, una exposición en la Biblioteca Municipal presenta imágenes de Irun antes y después de su quema, pertenecientes a la colección del fotógrafo Jaime Fernández (1891-1953).

## Gazteria

Ei Gazte!

### Jóvenes: empleo y vivienda

El informe "¿Qué hacer ante los principales problemas de la juventud?" elaborado por los jóvenes participantes en el programa Datorkigunea durante la segunda mitad del curso 2010-2011, ha sido presentado a lo largo del mes de octubre ante las instituciones colaboradoras: Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Álava y Gobierno Vasco. El informe recoge un diagnóstico, una definición de retos y una serie de propuestas en torno a la vivienda y el empleo, previamente definidos como los dos problemas principales.

### Jornadas sobre Participación

Los días 1 y 2 de diciembre en Donostia-San Sebastián se van a celebrar unas jornadas en torno al tema "Gazteen parte hartzea, bide berrien bila". Representantes institucionales, del mundo asociativo y del académico analizarán la viabilidad de las propuestas elaboradas por Datorkigunea y debatirán con los jóvenes implicados sobre cómo mejorar las opciones reales de participación política, social, económica y cultural. Se invita a todas las personas interesadas a que tomen parte activamente en estos encuentros abiertos a fin de contrastar el trabajo realizado y ayudar a construir un futuro mejor.

### Proyecto internacional

El Gobierno Vasco, a través de su Dirección de Juventud, quiere incorporar a sus programas de trabajo una propuesta surgida de Datorkigunea para la extensión de sus reflexiones al ámbito internacional. Se entiende que los campos de trabajo que cada verano organiza el Gobierno de Vitoria podría ser un marco adecuado para llevar a cabo esta experiencia. Así, bajo la dirección de Eusko Ikaskuntza varios jóvenes participantes en Datorkigunea están celebrando sesiones de trabajo para definir los medios necesarios y perfilar los detalles organizativos del encuentro internacional.

ASMOZ TA JAKITEZ

227

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE 2011

## Argitalpenak





### Joxerramon Bengoetxea

Este libro recoge las intervenciones en la ceremonia de entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2010 al jurista y europeísta Joxerramon Bengoetxea Caballero. Además del premiado y de los presidentes de las entidades otorgantes, José María Muñoa y Txomin García, en el acto intervinieron representantes de las siete universidades que participan en su concesión: Josu Zabala (MU); Maïté Lafourcade (Université de Pau); Iñaki Esparza (UNED); Mª Jesús Goicoechea Tobar (UPNA); Gabriel Insausti (Universidad de Navarra); José Luis del Val (Universidad de Deusto); Iñaki Goirizelaia (UPV/EHU).

### Eleria, 21

*Eleria* aldizkariaren 21 alea Eusko Ikaskuntzaren lankidetzaz Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen barnean 2010eko irailean antolaturiko ikastaroaren emaitza da. Zehazki, *Eskualdeak Europar Batasuneko "kide" berriaren inguruabarrak* izeneko ikastaroan "eskualde" figuraren inguruan hausnarketa teoriko eta praktiko bat burutu zen, bere fruituak zenbaki honetara ekarri ditugularik. Ikastaroaren irekiera hitzaldiaz gain, haren eduki osoa jasotzen da lau ataletan banatuta: (1) Eskualdearen alderdi historiko, etiko eta politikoa, (2) Eskualdeak eta Europar Batasuna, (3) Eskualdeak eta Justizia eta (4) Eskualdeak eta Politika Publikoak.

### Durangoko Azoka



1982tik, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren ekitaldi guztietan egon da Eusko Ikaskuntza. Aurtengoa abenduaren 4tik 8ra egitekoa da, galiziar kultura gonbidatua izango duelarik. Oraingo honetan Eusko Ikaskuntzak bi estandekin parte hartuko du (Artekale 31n eta 32an kokatuak). Horietako batean Elkartearen argitalpen funtsa erakutsiko da, bereziki azken berritasunak. Bigarren estanda gune elektronikoan egongo da, non bi ordenagailuren bidez on-line argitalpen eskaintzaren aukera bat erakutsiko den.

## Agenda

### Azaroa / Noviembre / Novembre

10: Orisoain. *Oficios de antaño*. Fernando Hualde Gállego

11: Bilbao. Jakin-mina. Itziar Laka

11: Donostia. Jakin-mina. José F. Martí Massó

11: Iruña. Jakin-mina. Daniel Innerarity

12: Burgui. *Indumentaria roncalesa*. Fernando Hualde Gállego

16-18: Bergara. Semana Cultural de Jakiunde

17: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

17: Pueyo. *Malditas descarriadas: mujer y marginación en la Navarra de los siglos XVI y XVII*. Amaia Nausia Pimoulier



19: Léoz. *Danzas y bailes de Navarra*. Mikel Aranburu Urtasun

22: Ataun. Jose Migel Barandiaran, gaur / hoy



22: Baiona. Présentation du livre Nestor Basterretxea

24: Pamplona. Jose Migel Barandiaran, gaur / hoy

25: Donostia. Entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral a María Bayo



25: Bilbao. Musika eta gaur egungo sorkuntza *Música y creación actual*

25: Donostia. Jakin-mina. Pedro Miguel Etxenike

26: Olóriz. *El mundo del carnaval: fiesta y desorden en Navarra durante la Edad Moderna*. Javier Ruiz Astiz

28: Vitoria. Jose Migel Barandiaran, gaur / hoy

30: Bilbao. Jose Migel Barandiaran, gaur / hoy

### Abendua / Diciembre / Décembre

1-2: Donostia. Datorkigunea jardunaldiak. Parte Hartzea

1: Lizarra. *Nafarroako Konkistaren 5. mendeurrenerantz (1512-1522)*. Joseba Asiron Saez

1: Donostia. Jose Migel Barandiaran, gaur / hoy

2: Bilbao. Jakin-mina. Félix M. Goñi

2: Donostia. Jakin-mina. Juan J. Iruin

3: Euskararen Nazioarteko Eguna



4-8: Durango. Euskal Liburu eta Disko Azoka

9: Baiona. Remise des Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona

9: Anglet. Conference *Gernika dans la mémoire*. Jean-Claude Larronde

10: Ataun. Joxemartin Apalategiri Omenaldia



10: Burguete. *Hacia el V Centenario de la conquista de Navarra (1512-1522)*. Joseba Asiron Saez

15: Iruña. Batzorde Eragilea, Batzorde Iraunkorra / *Comité Ejecutivo, Junta Permanente*

15: Orisoain. Oficios de antaño. Fernando Hualde Gállego

16: Bilbao. Jakin-mina. Carlos Matute

16: Bilbao. Jakin-mina. Pedro M. Diéguez

17: Urroz-Villa. *Falsedades en torno a la conquista de 1512*. Álvaro Adot Lerga

www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 9:00-13:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedia Fundazioa, Liceu Barcelona (Antoni Boffil), Eva Zubero, Barandiaran Fundazioa

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Fotokonposaketa: Ipar S.L. (Donostia)
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga

Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin